



*Nere maite polita  
nola zeran bizi?  
**Zortzi egun honetan  
etzaitut ikusi.**  
Badakit zabiltzala  
nigandik igesi,  
ez didazu ematen  
atsekabe gutxi.*

Indalezio Bizkarrondo «Bilintx»  
*Triste bizi naiz eta*



Biktoriano Iraolak egindako erretratua  
Iturria: Wikipedia



Egoera edo jarduera baten hasieratik zenbat denbora igaro den adierazten da denborazko esapideetan *honetan* eta *hartan* erakusleak erabiliz [singularrean eta leku-genitiboan (NON) jokatuta].

- Zortzi egun **honetan** ez zaitut ikusi.
- Zortzi egun **dira** ikusi ez zaitudala.  
(Zu ez ikusteak zortzi egun dirau.)

**HONETAN:** orainaldia

**HARTAN:** iraganaldia





## HONETAN: orainaldia




- Mendebaldeko gizateria gosete latzetik libratu **du** patatak **lau mende honetan**.
  - Mendebaldeko gizateria gosete latzetik libratu du patatak **azken lau mende hauetan**.
    - **\*...(azken) lau mende hauetan zehar.**
    - **\*...orain dela lau mende(ta)tik.**
- **Bi aste honetan** taldekideekin entrenatzen **ari da**, eta jokatzeko moduan dago.
  - **Azken bi aste hauetan** taldekideekin entrenatzen ari da, eta jokatzeko moduan dago.
    - **\*(Azken) Bi aste hauetan zehar...**
    - **\*Orain dela bi aste(ta)tik...**
- **Bi urte honetan** zure amak zer kalbario **daraman** ez dakizu!
 

*Antonio Amundarain: Lore bat loitan, 1932.*
- Baserri askok gutxi eboluzionatu **dute lau mende honetan**.
- **Hamar urte honetan** bi halako garestitu **da** hileta-zerbitzuen prezioa.

## HARTAN: iraganaldia

- **Bost urte hartan** etxera joan gabe zegoen.
  - **Azken bost urte haietan** etxera joan gabe zegoen.
    - Bost urte ziren etxera joaten ez zela.
    - Bost urte zeramatzan etxera joan gabe.
- **Bi egun hartan** euria **ari zuen** atertu gabe.
  - **Azken bi egun haietan** euria ari zuen atertu gabe.
    - Bi egun ziren euria ari zuela atertu gabe.



- Azken egunak grinan iragan zituen: suhia gerlan **zen lau urte hartan.**

Piarres Ibarrart: *Euskal literaturaz: 1934-1967*, 1990

- Gure kulturaren altxorra **hogeita zenbait urte hartan** beretua zuen.

Mixel Itzaina: *Mixel Labeguerie (1921-1980)*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1999

- **Bi egun hartan** ezer jan eta edan gabe **zeuden.**

## Adibide gehiago: azken ... honetan/hartan

- **Azken hogeit urte hartan** Bizkaia gaztelarrek gobernatzen zuten.  
*Mila Salterain: Erresumaren ilusentia, Txalaparta, 2014*
- Erreakzio horri esker milioika pertsona salbatu dira gosetik  
**azken 70 urte honetan.**  
*EHUskaratuak corpusetik hartua*
- **Azken hamar urte honetan** Europako herrialdeetako hondakinen bolumena % 60 baino gehiago igo da biztanleko.  
*Consumer aldizkaria*

## Adibide gehiago: zenbait ... honetan/hartan

- Andre zaharra **zenbait egun hartan** ohaturik zegoen (...) heriotzaren zain.

Toti Mtz. de Lecea: *Hautsi da katea*, Erein, 2004. Euskaratzailea: Elena Touyarou.

- **Zenbait urte hartan**, jada, Elkar-ek hiztegi berri osoago eta gaurkotuago baten beharra ikusten zuen.

Elixabete Etxeberria: *Frantsesez mintzo den euskarazko hiztegia*, 2004, erabili.eus (moldatua).

- Irteera-operazioa dela eta, auto-ilara handiak gertatzen ari dira **zenbait egun honetan** mugan.

Herria, 2005 (moldatua).



## Adibide gehiago: joan den ... honetan

- (...) barkatu beharko didazu, engainatuta eduki zaitut **joan den hogeita hamar urte honetan**.

Wolfgang Goethe: *Wether gaztearen arrangurak*, Igela, 2013. Euskaratzailea: Matias Múgica.

- **Joan den lau hilabete honetan** errentarik edo horniduren gasturik pagatu beharrik gabe ia hiru mila eta bostehun dolar aurrerratu ditu.

Paul Auster: *Sunset Park*, Alberdania, 2010. Euskaratzailea: Oskar Arana.

- **Joan den berrogeita hamar urte honetan** jendeak lan handia egin du Gasteizen eta Araban, eta lan hori probetxuzkoa izan da, zalantzarik gabe.

Miel A. Elustondo: *Zozoen elean (III)*. Pako Eizagirre. *Irakasle ohia*, Berria, 2015.